

## OHIKO ALDERAK

### **Zein da Programaren helburua?**

Programa elkartasun politikorako tresna bat da, eta giza eskubideen alde egiten duten lanagatik jazarpen eta mehatxu testuinguruetan lan egiten duten pertsonak eta kolektiboak babesten laguntzea du helburu.

### **Nori zuzenduta dago?**

Giza eskubideen alde egiten duten lanagatik beren bizitza edo osotasuna arriskuan ikusten duten eta Euskadin erakunde aliatu bat duten erakunde, Gizarte mugimendu edo kolektiboetara lotutako pertsonak.

### **Zergatik da beharrezkoa erakunde aliatu bat izatea Euskadin?**

Programa lankidetzako eta elkartasuneko euskal erakundearen lanaren tresna osagarria da. Horiek dira arriskuan dauden erakundeak eta kolektiboak lantzen ari diren testuinguruak ezagutzen dituztenak, eta haiek dira, elkarren ezagutza eta konfiantza horretatik abiatuta, Euskadiko defendatzaileen agenda politikoa lagunduko dutenak. Itzuleraren ondoren, hartutako pertsonen eta haien kolektiboaren egoeraren jarraipena ezin izango litzateke egin EAEko erakundeek betetzenduten zeregina bete gabe; izan ere, prozesu horiekin batera jarraituko dute, komunikazio zuzena eta arina izaten, eta gerta daitezkeen arrisku egoeren berri emango diote programari.

### **Zergatik hitz egiten dugu giza eskubideen defendatzaile antolatuez?**

Programara heltzen diren pertsonak babesten lagundu nahi dugu, bai eta haien erakundeak eta kolektiboak ere. Defendatzaileek jasaten dituzten indarkerien helburu nagusia gizarte sarea haustea da, beldurrak eta mesfidantzak sortuz. Babes kolektiboa indartzean, zailagoa da erasoak eta mehatxuak pertsonalizatzea, erresistentzia eta erakundeek bizitza eta giza eskubideak defendatzeko lanean jarraitzeko duten gaitasuna handituz.

### **Zer da babesa<sup>1</sup>?**

Pertsonak, elkarteak eta erakundeak bizitza eta lanerako espazio seguruak sortzeko eta zabaltzeko garatzen ditugun ekintzen multzoa. Integritate fisikoaren, digitalaren, emozionalaren edo espiritualaren aurkako mehatxuei aurre egiteko hainbat estrategia biltzen ditu, bai indibidualak, bai kolektiboak. Gure ustez, babesa ez da soilik mehatxurik eza, baizik eta pertsonen, komunitateen eta kolektiboaren ongizatea, dimentsio guztiak kontuan hartuta.

### **Nola garatzen da Programa?**

Herrialdetik aldi baterako irten eta Euskadin 6 hilabetez birkokatuz. Denbora horretan, eragin politikoa, laguntza psikoterapeutikoa eta hartutako pertsonen zaintza artikulatzen dugu, helburu bikoitzarekin:

- Nazioarteko laguntza-sareak zabaltzea eta indartzea, Euskadin, Espainiako Estatuan eta, hala badagokio, European agenda politiko instituzional eta asoziatiboa garatuz.
- Atsedeen hartzeko eta indarberritzeko espazio fisiko eta emozional bat eskainuz, zaintza gure ekintza politikoaren erdigunean jartzearen alde eginez.

---

<sup>1</sup> ANSUR kolektiboak definitzen duen terminoetan ulertzen dugu babesa, erakunde horrek lagundu baitio programari 10urtez.

### **Nolakoa da programan sartzeko prozedura?**

Urtero hilabeteko epea irekitzen da beste herrialde eta eskualde batzuekiko elkartasunean lan egiten duten euskal erakunde edo mugimendu sozialen bitartez bidaltzen diren hautagaitzak aurkezteko.

Hautaketa Batzordeak, bidalitako dokumentazioan eta arrisku eta genero irizpideetan oinarrituta, adostasunez erabakitzen du zein hiru pertsona harreratuko diren.

Larrialdi egoerei ezin zaie beti erantzun, programak protokolo bat eta epeak dituelako. Normalean, deialdia irailean irekitzen da urtero, eta bisak kudeatzeko eta herrialdetik irteteko izapideen ondoren, pertsonak hurrengo urteko urtarril-otsailean ailegatzen dira Euskadira. Harrera, beraz, urteko lehen seihilekoan egiten da (6 hilabeteko egonaldia Euskadin).

### **Zein kolektiboei ematen zaie lehentasuna?**

Ikuspegi feministatik, eta gaur egun arrisku handieneko egoeran dauden kolektiboei erreparatuta, lehentasuna ematen diegu erakunde feministetako emakumeei, LGTBIQ+ pertsonen eskubideen alde lan egiten dutenei eta lurraren, lurraldearen eta ondasun komunaren alde lan egiten dutenei (nekazariak, indigenak eta afrikar ondorengoak).

### **Posible al da harrera seme-alabekin egitea?**

Bai, ikuspegi feministatik, Programak seme-alabak ardurapean dituzten emakumeei sarbidea erraztearen aldeko apustua egiten du.

### **Posible al da erakunde edo kolektibo bera behin baino gehiagotan aurkeztea?**

Bai, erakunde edo kolektibo bera hainbat ediziotan aurkeztu daiteke.

### **Non bizi dira defendatzaileak?**

Defendatzaileek etxebizitza partekatzen dute Bilboko hirian. Bakoitzak bere logela eta espazio komunak ditu: sukaldea, egongela eta komunak.

Harreratutako lankideen eta programan parte hartzen duten pertsona guztien arteko zaintza eta errespetua elkarbizitzarako oinarritzko araua da, eta Euskadin egon bitartean egin beharreko lan politikoaren funtsezko printzipioa. Ez da onartuko indarkeria matxistarik, sexistarik, homofoborik, lesfoborik, transfoborik, klasistarik edo arrazistarik.

### **Zeintzuk dira programan parte hartzen duten agenteak?**

Eusko Jaurlaritzako berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Giza Eskubideen, Biktimeneta Aniztasunaren Zuzendaritzak gidatuta, eLankidetzeta-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntza ere badu. Zehar-Errefuxiatuekin erakundeak egiten du koordinazio teknikoa.

Akademiako, lankidetzako eta giza eskubideetako euskal erakundeetako eta Eusko Legebiltzarreko kideek ere parte hartzen dute.

Horrez gain, babes integral feministako aditu baten eta arreta psikoterapeutikorako kabinetebaten laguntza du.

Zalantzak dituzu? Informazio gehiago behar duzu?

( zehar )  
errefuxiatuekin

Zehar-Errefuxiatuekin

Telefonoa: (0034) 688734316 / (0034) 688  
80 29 62

[programa.proteccion@zehar.eus](mailto:programa.proteccion@zehar.eus)

[www.zehar.eus/que-hacemos/defensoras-de-derechos-humanos/](http://www.zehar.eus/que-hacemos/defensoras-de-derechos-humanos/)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA GIZA  
ESKUBIDEEN SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y  
DERECHOS HUMANOS



Giza Eskubideen, Biktimen eta  
Aniztasunaren Zuzendaritza – Eusko  
Jaurlaritza

Telefonoa: (0034) 945.016.628

[derechos-humanos@euskadi.eus](mailto:derechos-humanos@euskadi.eus)

[www.euskadi.eus/defensores-y-defensoras-de-los-derechos-humanos/web01-s1lehbak/es/](http://www.euskadi.eus/defensores-y-defensoras-de-los-derechos-humanos/web01-s1lehbak/es/)



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VAŞCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO

eLankidetzeta-Garapenerako  
Lankidetzaren Euskal Agentzia – Eusko  
Jaurlaritza

Telefonoa: (0034) 945.018.087

[agencia@elankidetzeta.eus](mailto:agencia@elankidetzeta.eus)

[www.elankidetzeta.euskadi.eus/](http://www.elankidetzeta.euskadi.eus/)